

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Toki Ogasunen hainbat zerga eta tasarentzat erregulazio berria proposatu du Gobernuak

*Ezkontza zibilen gaineko tasen egungo araudia aldatzeko lege-proiektua onartu du, baita egoitza fiskalari buruzko publizitatea kentzea ere, eta udal gainbalioaren gaineko zerga eguneratu du*

Asteazkena, 2018.eko azaroak 7

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legea aldatzeko lege-proiektua onartu du gaurko bilkuran, hainbat udal tasa eta zerga hartzen dituena.

Zehazki, ezkontza zibilak egiteko Udalek tasa ezartzeko aukera izatea aipatzen da. Era berean, subjektu pasiboaren egoitza fiskalaren publizitatea kendu nahi da Jarduera Ekonomikoen Erregistroan eskaintzen den informazioan, ez baita beharrezkotzat jotzen publizitatearen helburua betetzeko, eta pertsona fisikoak izan eta jarduera ekonomikoa bizi diren helbide berean gauzatzen ez duten subjektu pasiboaren esferan sartzea izan liteke.

Hirugarrenik, Udalek hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan, udal gainbalioa bezala ezagutzen denean, aplikatu beharreko urteko koefizienteak eguneratu dira. Koefiziente horiek denboran zehar alda daitezke, higiezinaren merkatuko prezioen bilakaeraren arabera.

Azkenik, Zergen inguruko Foru Lege Orokorrarekin modu korrelatiboan eta bat etorritan, eta Estatuak egin duenaren antzera, tokiko legedian zergaz besteko ondare-prestazio publikoak izeneko kategoria fiskal berria sartu da. Hain zuzen ere, toki-erakundeak pertsona pribatuaren bidez herritarrei eskainitako tokiko zerbitzu publikoengatik eskatutako kontraprestazio ekonomikoak dira; alegia, ez organo publiko propioen bitartez, baizik eta kapital erabat publikoko udal merkataritza-sozietatearen bidez edo erakunde kontzesionario pribatuaren bidez (esate baterako, hiri-hondakinak jasotzeko udal zerbitzu publikoa emateagatik herritarrek ordainduko dutena, baina kontzesionario pribatu batek egina).